

PP ere, 3Lren alde



**MIKEL BASABE
KORTABARRIA**
IRAKASLEA

Euskarari egurra eman eta eman ari da Espainiako Justizia azken aspaldian. Azken aizkorakada (artikulu hau uztail erdialdean idatzitakoa baita) Auzitegi Konstituzionalak eman dio. Susmatzekoa da aurrerantzean beste batzuek ere indar berriz ekingo diotela gure hizkuntza honi egurra emateari. PPK, esaterako.

Eta egur-emate horretan, irakurri zer dioen PPren hezkuntza programak: "151. Bermatuko dugu hizkuntza ofizial bat baino gehiagoko autonomia erkidegoetan, hizkuntza orekaren patroiarekin bat, biak hartuko direla irakaskuntza-hizkuntzatzat, ikasle guztiek gaztelaniaz eta dagokion hizkuntza koofizialean behar bezala jardun dezaten".

Jaurlaritzak eta EH Bilduk legez (hezkuntzako lege-proiektuaren 67.1 artikulua), PPK ere edukiak gaztelaniaz irakatsi gura ditu. Ingelesez ere bai, jakina: garrantzitsuagoa zaionez, programako 150. puntua da. Ez nau harritzen. Alegia, ez nau harritzen PPK hori gura izateak.

Are okerrago, hezkuntza legeak kendu egingo ditu orain arteko hizkuntza ereduak (xedapen indargabetzaile bakarraren 1. eta 2. puntuak). Horrek zer ekarriko du? Bada, orain arte ez bezala, Espainiako lege batek gaztelaniazko gutxieneko irakaskuntza ezartzen duenean, eskola publikoak nahitaez gehitu behar-ko dituela irakastorduk espainolez. Eta

PPren 145. puntuak hauxe agintzen du: "LOMLOE erreformatuko dugu".

Orain arte, eskola publikoan desager- tze bidean dagoen A ereduak balio zuen gaztelaniazko irakaskuntza bermatze- ko, hor ikasgai guztiak ematen baitira erdaraz. Baina hezkuntza legea onartu- takoan eredu bakarra izango dugunez, eredu horretantxe jaso behar-ko dira PPK, gobernura ailegatzen denean, nahitaez gaztelaniaz irakasteko ezarriko dituen gutxieneko ikastorduk.

Ez egin zalantzarik: lehenago-geroa- go, gobernura ailegatuko dira. Ez egin zalantzarik: ailegatutakoan, gaztelaniaz- ko ordu kopuru minimoa ezarriko dute. Gaur egun, Kataluniako hezkuntza sis- tema dela eta, gaztelaniazko gutxieneko orduen auzia... Konstituzionalean da: za- lantza egiten duzue?

ARGIAko azken artikuluan, Ruben Sánchezek EH Bildu eta meloiak aipatu zituen. Plana irekita, Jaurlaritzako eta Legebiltzarreko euskaltzaleak hartuko ditut begi-bistan: ez zabaldu meloi hau.

Ez ipini, hezkuntza sisteman ere, eus- kara eztabaida politikoaren erdigunean. Ez ahuldu euskara hezkuntza-sisteman. Ez utzi Konstituzionalari erabakitzen gurean zenbat gaztelania eman behar- ko den. Ez hipotekatu eskola publikoak ikasleak euskalduntzeko duen ahalme- na, bera baita mende honetan euskaldun gehien hezi duen sarea. ●

Herrira itzultzea



**EVA PEREZ-PONS
ANDRADE**

Herrira bueltatzeak erritmoa jaista ekarri dit. Hiria guztiz utzi gabe, berriro konektatu dut naturarekin, auzoarekin eta nirekin. Duela urte batzuetako Evarekin, ezinbestean. Orduak pasatzen ditut ortua lantzen, ordaindutako lanak eta bestelakoek uzten didaten heinean. Ortu bistan eta auzo erdian egoteak, kanpoko edozein iruzkin jasotzeko prest jartzen zaitu; adin jakin bateko gizona ez izateak, edozein gizon- txoren iruzkin paternalistak jasotzeko prest jartzen zaitu. Desberdina delako. Aitak bere parekoekin elkarriketak di- tuen bitartean, nik aginduak diren ahol-

kuak jasotzen ditudalako, eta aitari ez zaiolako inoiz auzokidea ortuan sartu bere baimenik gabe bi tomatera lotzea, adibidez. Era berean, auzoko emaku- mee-i oso eskertuta nago zelan nagoen galdetxeagatik, lana baloratxeagatik eta laguntza eskaintxeagatik.

Herrira itzuli naizen arren, etxetik, ortutik eta aldizkako paseoetatik kanpo ez dut bizitzarik egiten, horretarako hi- rira itzultzen naiz. Duela urte batzuk bai- no askoz erosoago egon arren, oraindik ez dut nire tokia egitea lortu. Erritmoa lasaiagoa da herrietan, baina aldaketak ere motelago datoz. ●